

## ESKAINNTZA

### Baratzezaintza biologikoan trebatzeko gunea Xarrikota Pean



#### ■ TREBATU elkarteak eta « Laborantzako Trebatze Gunea »

TREBATU elkarteak, « Laborantzako Trebatze Gunea » kudeatzen du ipar Euskal Herri eta Landes hegoaldean. Elkarteak ingurune desberdineko 10 egiturek osatzen dute :

- laborantza mundua (AFI, AFOG, APFPB, BLE, EHLG, Lurzaindia)
- laborantza formakuntza (AGROCAMPUS 64)
- ekonomia sozial eraldatzaia (CAE Interstices)
- kontsumitzaileen ordezkariak (Inter AMAP Pays Basque)
- Euskal Hirigune Elkargoa.

Trebatze gunea, laborantzan instalatzeko xedea duten eta beren proiektua egiazko baldintzetan entseatu nahi duten pertsoner zuzendua da, instalazio proiektua baieztatzeko helburuarekin.

Elkarteak proiektu eramaileari honakoak proposatzen ditu :

« Inkubagailu » funtzioa	« Laguntza eta segipen » funtzioa
Aktibitatea juridiko, fiskalki eta kontableki bere gain hartzen du Trebatuk ; horretarako proiektu eramailearekin CAPE ( <i>Enpresa proiektua sustengatzeko kontratua</i> ) kontratua izenpetzen da (urte bateko kontratua bi aldiz arraberri daitekeena).	Trebatzearen lorpena bermatzeko eta instalazio proiektua prestatzeko: <ul style="list-style-type: none"><li>- Enpresa kudeaketan laguntza,</li><li>- Segipen humanoa,</li><li>- Hilabetero hitzorduak,</li><li>- Segipen tekniko eta formakuntza kolektiboak (proiektu eramaileen arteko trukaketekin) Trebatuaren kide diren egituren partetik.</li></ul>
« Mintegi » funtzioa	« Animazio eta koordinazio » funtzioa
Trebagune ekipatu bat bere esku jartzen da (lurrak, lan tresnak).	Dispositibo osoa kudeatzen du Trebatuk: lurraldeko partaideekin eta administrazioarekin lotura, barne eta kanpo komunikazioa.

Horrez gain, proiektu eramaileak beharko du:

- « laborari zurrkaltz » bat izendatu, kontseiluak emanen dizkiona eta bere hautu estrategikoetan lagunduko duena,
- « lekuko sustengu talde » bat osatu, eskualdean sare bat osatzen lagun dezaten.

Trebatu, RENETA, Frantziako laborantzako trebaguneen sarearen barne da.

▪ **Etxaldea - Trebagunea**

**Kokapena:** Xarrikota Pean - Xiberoan  
(*etxaldea hitzordu bat finkatuz baizik ez daiteke bisita*)

**Etxaldea :** gunea 2 pertsona trebatzeko antolatua da, (bakarka lan egin nahi duten 2 pertsona, bikote bat edo geroan elkarrekin lan egiteko asmoa duten bi pertsona,...).



- 3Ha zelai (hektarea bateko 3 lur zati), bidetik hurbil
- 4 negutegi (orotara 1128m<sup>2</sup> aterbe, ekipatuak, bazterreko idekidurekin)
- Landareak ekoizteko negutegi bat (100m<sup>2</sup> - ez ekipatua)
- Ureztatze sistema, negutegietan eta zelaietan
- Aterbea, biltegi batekin (62m<sup>2</sup>)
- Behar diren tresna haundi guztiak : traktorea, lurra lantzeko eta prestatzeko materiala, landareen kudeatzeko materiala, ereitekoa, landatzekoa eta beste ...
- Lurrak laborantza biologikoan dira.

**Salmenta ahalmena:** merkatuaren azterketa batek, inguruko salmenta ahalmena erakutsi du: AMAP zareak, enpresa zareak, e-zareak, saltegiak.

- Trebatzeak gehienik 3 urte irauten du.

<b>BALDINTZAK</b>	<b>EGIN BEHARRAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Laborantzako diploma (BPREA, BTS edo beste) hautatu ekoizpenean eta esperientzia praktikoa minimo bat.</li> <li>➤ Langabezia edo sozial laguntzak ukan, edo lanaldi partzialean izan, CAPE kontratuaren iraupen osoan.</li> <li>➤ Aktibitate hasieran aitzinatu behar diren gastuak estaltzeko diru zama ukan (5000€ inguru/pertsonaka).Trebaturik finantzamenduak xerkatzen laguntzen ahalko du.</li> <li>➤ Lurraldean laborantzan instalatzeko xedea ukan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hautagaitza txostena* osatu eta igorri berantetik <b>irailaren 30eko</b> *(txostena telekargatzeko : <a href="http://www.reneta.fr/trebatu">www.reneta.fr/trebatu</a> / <a href="http://www.arrapitz.eus/trebatu">www.arrapitz.eus/trebatu</a> )</li> <li>➤ Proiektua, beharrak eta egin beharrak zehazteko aitzin elkarrizketa bat</li> <li>➤ TREBATU elkarteko kidez osatutako batzorde baten aitzinean proiektua aurkeztu</li> <li>➤ CAPE kontratuaren izenpedura</li> <li>➤ Trebatzearen abiatzea : 2020eko urtarrileko bigarren hamabostaldian</li> </ul>

Xehetasun gehiagorentzat edo etxaldea bisitatzeko, Trebaturekin harremanetan sar zaitezte (06.49.43.49.42 eta [trebatu@outlook.com](mailto:trebatu@outlook.com))

**HAUTAGAITZA TXOSTENA IRAILAREN 30eko IGORRI BEHAR DA,**  
**TREBATU** elkarteko lehendakari jaunari zuzenduz, ondoko helbideetara :  
 « TREBATU elkarte - Haize Berri - 64120 IZURA-AZME » eta [trebatu@outlook.com](mailto:trebatu@outlook.com)